

# Dinopuxika



eskulana



## materiala

- Dinosauroen irudia mozteko fitxa (Iratxo dendan eskuragarri)
- Koloretako puxikak
- Koloretako kartulina edo koloretako papera
- Artaziak
- Zelo

## azalpena

Eskulan hau egiteko, iratxo dendan, doan, dinosauro desberdinen irudia mozteko fitxak eskuratzeko aukera izango duzue. Etxean inpresora eduki ezker, nahi duzuen dinosauroen ereduak inprimatu ahal izango duzue.

Ereduak moztu eta koloretako kartoi mehearen gainean edo koloretako paperaren gainean errepasatu eta moztuko ditugu. Zati guztiak moztuta daudenean, puxika puztu, lotu eta zeloa erabiliz gure dinosauroa osatuko dugu.



Bidali zuen argazki edo bideoak 688 725 738 zenbakira edo ludoteka@soraluze.eus helbidera